


Giza Liburutegiak 2018

EGIPTOKO KULTUR ANIZTASUNA



RAMY KAMEL

GIZA LIBURUTEGIAK 2018

Pertsona bakoitza liburu bat da. **"Giza Liburutegien"** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

"Giza liburutegiak" Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **"Giza Liburutegien"** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **"liburu"** bilakatzen da eta entzulea berriz **"irakurle"**.

Ramy Kamel eskertu nahi dugu Elkarrekin Kooperatiba Txiki elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.

Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner

Egiptoko kultur aniztasuna

Ramy Egiptokoa da eta filologia ikasketak egin zituen. Hona etorri zen, esperientzia on bat bizi nahian. Hasieran pentsatzen zuen urte eta erdi egingo zuela hemen eta gero Egiptora itzuliko zela, zeren, han turismo-gidari gisa egiten zuen lan eta askoz gehiago irabazten zuen, baina Udaberri Arabiarra delako iraultzaren ondoren, hemen geratuko zela erabaki zuen, eta harrezkero 10 urte egin ditut Donostian bizitzen. Irakasle dabil adin txikikoen UBA zentroan: gaztelania, matematika eta geografiako eskolak ematen dizkie 12 eta 18 urte bitarteko ikasleei. Bere hitzetan, oso gustura ari da horretan. Ezkonduta dago, eta bi alaba euskal-egiptoarren aita da. Alabek hirurak dakizkitez: euskara, gaztelania eta arabiera. Hau da berak ekarritako istorioa:

“Gaur bi gai aipatuko ditut: batetik, Egiptoko kultur eta erlijio aniztasuna, eta, bestetik, Udaberri Arabiarra gertatuz geroztik musulmanen eta kristau koptoen* artean sortu diren liskarrak.

Egoera kokatze aldera, gogoan izan hiru kontinente zahar eta garrantzitsuren artean dagoela Egipto: Asia, Afrika eta Europaren artean. Mediterraneoak batzen ditu denak. Ondorioz, historiaurretik bertatik, Egipto amu handia izan da inbasio-indarrentzat. Nolabait esatearren, faraoien garaitik hona denak saiatu dira Egipto hartzen: faraoiak, musulmanak, kristauak, erromatarrak, ondoren ingelesak, frantsesak... Horregatik, askotarikoa da bertako kultura eta jendea. Askotariko hazpegiak daude: beltzak, Saharaz hegoaldekoak, asiarrak, beltzaranak, ilehoriak, ilegorriak... denetik dago. Egia esan, nahaste bitxi samarra da.

Erljioen aldetik, egiptoar gehienak musulmanak dira. Biztanleen %93 musulman sunitak dira, %6, berriz, kristau koptoak, eta %1, azkenik, juduak eta beste erlijio batzuetako kideak. %6 kopuru txikia irudituko zaizue agian, baina gogoan izan 99 milioi lagun bizi direla Egipton.

2011n Egipton abiatu zen Udaberria Arabiarraren iraultzari helduta, ziurrenik askok mundu osora zabaldu ziren argazkiak ditu buruan. Egia esan, argazkiek oso irudi ona eman zuten, erakusten baitzuten kristauak eta musulmanak guztiz elkarturik zeudela Mubaraken erregimena eraitsi zen garaian. Adibidez, musulmanak lasai otoitz egin dezaten kristauak haiek babesten ageri den argazkia. Edota, beste argazki bat non iman eta apaiz bana ageri diren, bata korana eta besteak gurutzera eskuan dutenak. Eta, orduan, gauzak horrela bazeuden, zer gertatu da? Zer arazo piztu da? Zergatik daude gaur egun halako tirabirak?

Arrazoi nagusia da, alderdikeria handia egon dela, eta 2011ko iraultzan ikus daiteke hori. Iraultza abiatu zenean, bi alderdi handienek bat egin zuten: Anaiarte Musulmanak eta kristau koptoak elkartu egin ziren (kristau koptoek beren alderdi politikoa sortu zuten diplomazian sartu ahal izateko eta gobernuaren parte izateko).

Militarrek, berez, "babestu" egin behar zuten erregimen-aldaketa, baina, horren orde, men egin zioten "zatitu eta irabazi" leloari. Anaiarte Musulmanarengana jo zuten eta esan zieten herritar gehienak beraien alde egongo zirela kristau koptoen babesik gabe ere (eta, egia esan, halaxe zen). Orduan, militarrek, istiluak piztu aldera, jendea bidali zuten, esate baterako, kristauak biltzen ziren tokietara, eta han molotov koktelak jaurti zituzten, eta ardura Anaiarte Musulmanari egotzi. Orduan, tentsio izugarria piztu zen. Eta Anaiarte Musulmaneko kideek agintea hartu zutenean, ez ziren oso txukun ibili, konfiantza handiegia eman zioten militarrei, kristauak baztertu zituzten, eta hortxe hasi zen arazo politikoa.

Arazo hori kalera iritsi zen eta ekintza asko egin ziren meskiten eta elizen kontra. Telebistak, ordea, elizen aurkako erasoak aipatzen zituen batez ere, hala musulmanen eta kristau koptoen arteko ezikusia areagotzeko.

Baina ezikusi hori beti egon al da? Ez. Azken 40-50 urteetan piztu da, militarrek Egiptoko gobernu hartu zutenez geroztik, 1952an.

Ni jaio nintzen hirian, adibidez, auzo berean zeuden elizak eta meskitak, are, aldi berean aditu ohi ziren musulmanak otoitzera deitzen dituzten deiak eta elizetako kanpaiak. Lagun kristau asko neuzkan eta arratsalde asko igaro dut haien etxeetan. Eskoletan ere halaxe zen:

musulmanak eta kristauak oso batuta zeuden. Nire ikasgelan 12 kristau eta 13 musulman ginen, eta erlijio irakasgai kristautasuna eta islama lantzen genituen, biak. Esan dezagun giro ona zegoela. Orduan, nolatan iritsi gara egoera honetara?


Gogoz hauspotu da gorrotoa, alderdien mesedetan. Musulmanek egindako eraso eta jazarpenari erreparatuz gero (egia baita kristauen aurkako jazarpen handia piztu dela), eta, esate baterako, Menia probintzian gertatutakoei erreparatzen badiogu, hara non hiri horretan kristau asko bizi diren, baina, aldi berean, hiri horretako biztanle askok ez dakien irakurtzen ez idazten eta kultur maila oso baxua duen. Hortaz, komunikabideek gogotik hauspotu dute bi taldeen arteko liskarra; are, kristauen etxeak erre zituztela ikusi dugun arte eta baita, hirian bertan, kristauak zenbait meskita eta musulmanen etxe erre zituztela. Elizgizon kristauak eta musulmanek esku hartu zutelako konpondu zen arazoa. Liskar horien atzean zer zegoen, bada, batetik ezjakintasuna, eta bestetik komunikabideen jarduna, gorroto-munstro bat erein baitzuten. Gero, jakin dugu Estatu Islamiarrak kristau asko hil dituela, baina, orotara, terrorismo-ekintzen biktimen %3 dira kristauak, batez ere musulmanak hil baitituzte, sunitak eta xiitak ere bai. Adibidez, orain dela bi hilabete, Sinaiko meskitaren aurkako erasoan, 300 lagun hil ziren, eta musulmanak ziren guztiak.

Nire iritziz, zenbaiten interesen mesedetan sortu dira bi erlijioen arteko talkak: lehenik 1952tik aurrera eta are gehiago 2013tik aurrera. Izan ere, lehenago, orain dela 10 urte, bakean bizi ziren bi taldeak, baina iraultzaren ostean egoera lehertu zen eta orain gainbeheran doaz herrialde arabiarrik eta Egipto bera ere. Jada ez da udaberri arabiarrik, udazkena eta negua baizik.

Hortaz, horrelaxe daude kontuak gaur egun. Orain dela hiru urte, bi erlijioetako elizgizonak elkartzen hasi ziren, arazoak konpondu nahian. Egunerokoan ere bai lasai bizi gara elkarrekin; zenbait tokitan, ordea, arazo txiki bat atera orduko hortxe azaleratzen dira herra eta gorrotoa. Klase ertaina desagertu da, horregatik hezkuntza garestitu da, eta pribatizatu. Libera egiptoarraren balioa %70 jaitsi da eta lan asko dagoen arren, lan eginda ere ez du bizitzeko ematen, prezioak izugarri igo baitira; ondorioz, jende asko bi lanetan dabil. Espero dugu noizbait konponduko dela egoera eta Egipto berriro izango dela kultura eta erlijio askotarikoen bizileku.

*Kristau koptoak: Erlijio kristauaren jarraitzaile diren egiptoarrei esaten zaie hala, Eliza Ortodoxo Koptoko, Eliza Katoliko Koptoko eta Eliza Ebanjeliko Koptoko kideei.

GIZA
LIBURUTEGIAK
- 2018-
BIBLIOTECAS
HUMANAS



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural